



MUNGIako MERKATARITZANETA ZERBITZUEN SEKTOREAN ZUZENEKO KONTSUMOA SUSTATZEKO "MUNGIBONOA2024" PROGRAMAREN DEIALDIA	CONVOCATORIADEL PROGRAMA "MUNGIBONOA2024" PARA EL ESTÍMULO AL CONSUMO DIRECTO EN COMERCIO Y SECTOR SERVICIOS DE MUNGIA
1. Xedea: Mungiako Udalak merkataritza eta zerbitzu-sareari laguntzea du helburu, tokiko kontsumoa sustatzeko deskontu-bonoak sortuz. Hala, Udalak, deialdi honen bidez, Mungiako kontsumo zuzena bultzatu nahi du, suspertze ekonomikoa eta enplegua indartzeko.	1. Objeto: El Ayuntamiento de Mungia tiene como objetivo apoyar a la red comercial y de servicios mediante la creación de bonos descuento para incentivar el consumo local. Así, el Ayuntamiento, a través de esta convocatoria, pretende impulsar el consumo directo en Mungia para potenciar la reactivación económica y el empleo.
2. Aurrekontua: Deialdi honetan gehienez ere 79.000 euro banatuko dira, deialdiaren xede diren laguntzak finantzatzeko indarrean dagoen udal-aurrekontuko 50/4331/47101 "Transferentziak beste enpresa batzuei, ETEei eta autonomiei," partidatik.	2. Presupuesto disponible: La cantidad máxima a distribuir en esta convocatoria será de 79.000 euros, realizándose con cargo a la partida 50/4331/47101 "Transf. a otras empresas ,Pymes y autónomos" del presupuesto municipal vigente, destinado a la financiación de las ayudas objeto de la presente convocatoria.
3. Pertsona onuradurak: - 16 urtetik gorako Mungiako bizilagunek izango dute bonoaren deskontuaz baliatzeko eskubidea. - Pertsona bakoitzak –NAN bidez identifikatuta – gehienez ere 60€ko balioa duten 6 bono eskuratu ahal izango ditu. - Bonoak deskontu gisa erabili ahal izango dira atxikitako establezimenduetan egiten diren erosketetan, era honetara: - o Banaka, 30€ edo gehiagoko erosketetarako bono bakarra erabiliz. - o Gehienez 6 bonoak batera, 180€ edo gehiagoko erosketa egitean.	3. Personas beneficiarias: - Tendrán derecho a beneficiarse del descuento del bono las y los vecinos de Mungia mayores de 16 años. - Cada persona identificada mediante DNI, podrá sumar un máximo de 6 bonos por valor de 60€. - Los bonos podrán ser utilizados como descuentos en las compras que se realicen en los establecimientos adheridos de acuerdo al siguiente régimen: - o Individualmente un solo bono para compras igual o superiores a 30€. - o Como máximo 6 bonos juntos en un acto de compra igual o superior a 180€.
4. Diruz lagunduko da: - Kanpainara atxikitako establezimenduetako kontsumoa lagunduko da diruz, horietan eskuragarri egongo den mota bakarreko deskontu-bono baten bidez. - Horretarako "MUNGIBONOA" izeneko 7.900 bono jaulkiko dira eta bakoitzak 10 euroko balioa izango du. - Atxikitze-aldia amaitzean eta programaren baldintzak bete direla egiaztatzean, bonoak programara atxikitako establezimenduen artean banatuko dira. - Deskontu-bonoak trukatzeko erabiliko den sistema establezimenduetan trukatu den bonoa izango da eta hauen aplikazioa establezimenduek beraiek egingo dute ondasunak eskuratzen edo zerbitzuak hartzen diren unean. - Bonoak trukatzeko epea: 2024ko ekainaren 1etik 30era.	4. Actividad subvencionable: - Se subvencionará el consumo en los establecimientos adheridos a la campaña, a través de un único tipo de bono-descuento disponible en los mismos. - Para ello, se emitirán 7.900 bonos denominados "MUNGIBONOA" con un valor de 10 euros cada uno de ellos. - Al finalizar el periodo de adhesión y comprobar el cumplimiento de los requisitos del programa, los bonos serán repartidos entre los establecimientos adheridos al programa. - El sistema de canje de bonos-descuento utilizado será el de bono canjeado por los propios establecimientos adheridos y su aplicación será efectuada en el momento de la adquisición de los bienes o prestación de servicios. - Plazo de canje de bonos: del 1 al 30 de junio de 2024.



5. Establezimenduek bete beharreko baldintzak programara atxikitzeko: Atxikitako establezimendutzat hartu ahal izango dira Mungian establezimendu ireki bat duten eta 10 langile baino gutxiago dituzten merkataritza eta zerbitzu-sektoreetako enpresa eta langile autonomoak, haien jarduera, 2. eranskineko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeetako batean sartzen bada. Atxikitako establezimenduek Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintza guzti-guztiak bete beharko dituzte.	5. Requisitos de los establecimientos para la adhesión al programa: Podrán tener la condición de establecimiento adherido las empresas y personas trabajadoras autónomas de los sectores comercio y servicios con menos de 10 empleadas o empleados que cuenten con un establecimiento abierto en Mungia y cuya actividad se encuadre en uno de los epígrafes del Impuesto sobre Actividades Económicas del Anexo 2. Los establecimientos adheridos deberán cumplir todos y cada uno de los requisitos establecidos en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones.
6. Establezimenduek programari atxikitzeo aurkeztu beharreko dokumentazioa: - Eskabide-orri normalizatua eta erantzukizunpeko adierazpena (sinatuta). 1. eranskina. - Errola-egoeraren ziurtagiri eguneratua (Jarduera Ekonomikoen Ziurtagiria – EJZ) kanpainan sartutako epigraferen batean alta emanda dagoela adierazten duena (2. eranskina); horretarako, jarduera ekonomiko nagusiaren EJZ epigrafea aurkeztu beharko dute, bertan ondoko datuak adierazita: alta data, helbide fiskala, eta, hala badagokio, jarduera garatzeko lokalaren erreferentzia. - Banku-helbideratzearen fitxa. Negozioari lotutako banku-kontuaren zenbakia duen inprimakia, dagokion finantza-erakundeak baliozkotua. <u>“Mungibonoa” ekimenaren aurreko deialdietan onuradun izan direnek, baldin eta Udalarekin duten erreferentziazko banku-kontua aldatu ez badute.</u>	6. Documentación a aportar por parte de los establecimientos para la adhesión del programa: - Impreso normalizado de solicitud y Declaración Responsable firmada. Anexo 1. - Certificado actualizado de Situación censal (Certificado de Actividades Económicas - IAE) que indique estar dado de alta en alguno de los epígrafes incluidos en la campaña (Anexo 2), para ello deberán presentar el epígrafe I.A.E. de la actividad económica principal con su fecha de alta, el domicilio fiscal y en su caso la referencia del local de desarrollo de la actividad. - Ficha de domiciliación bancaria. Impreso con el número de cuenta bancaria vinculada al negocio validado por la entidad financiera correspondiente. <u>No la tendrán que presentar quienes se hayan beneficiado de anteriores convocatorias de “Mungibonoa” que no hayan modificado su cuenta bancaria de referencia con el Ayuntamiento.</u>
7. Eskabideak aurkezteko epea eta modua: - Eskabideak aurkezteko epea 5 egun baliodunekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. - Atxikitako establezimendua izateko aurkeztu behar diren eskabidearen eta erantzukizunpeko adierazpenaren eredu normalizatuak Udalaren webgunean egongo dira eskuragarri. - Eskabidea Mungiako Udaleko Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ/SAC) aurkeztuko da; edo, bestela, egoitza elektronikoaren bidez, dagokion dokumentazioarekin batera. - Establezimendu batek aurkeztutako eskaera hartzeak (izapidetzeko) ez dio Udalari establezimendu horri diru-laguntza emateko inolako konpromisorik sortuko. - Eskabide guztiak aztertu ondoren, gehienez ere 3 eguneko epean ebatziko da atxikitako	7. Plazo y forma de presentación de solicitudes: - El plazo de presentación de solicitudes será de 5 días hábiles a partir del día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia (BOB). - El modelo de solicitud normalizado y declaración responsable para la obtención de condición de establecimiento adherido estará disponible en la web municipal. - La solicitud se deberá presentar en el Servicio de Atención Ciudadana SAC del Ayuntamiento de Mungia o a través de su sede electrónica junto con la documentación correspondiente. - La admisión a trámite de una solicitud no generará compromiso alguno de concesión de aquella. - Una vez estudiadas todas las solicitudes se resolverá en un plazo máximo de 3 días el listado de establecimientos adheridos notificándose a los establecimientos solicitantes y publicándose en la



establezimenduen zerrenda, eta eskaera egin duten establezimenduei jakinaraziko zaie, Mungia Udalaren webgunean argitaratuta.	página web del Ayuntamiento de Mungia.
8. Eskabidea zuzentzea: Programara atxikitzeko eskaerak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu edo eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere bost egun balioduneko epean zuzen ditzala antzemandako akatsak. Epe hori igarota, eskaeran atzera egindakotzat joko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan ebazpena eman ondoren.	8.Subsanación de la solicitud: Si la solicitud de adhesión al programa no reúne los requisitos establecidos en estas bases o no se acompaña de la documentación exigida, se requerirá a la parte interesada para que en un plazo máximo de cinco días hábiles subsane los defectos detectados. Transcurrido este sin que lo hubieran hecho, se les desistirá su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre.
9. Udalari aurkeztu behar zaizkion justifikazioa eta likidazioa - Bonoak trukatzeko, aplikazio baterako sarbidea emango da. - Atxikitako establezimenduek, likidazioa egiteko, App bidez erregistratu beharko dute salmentari dagokion ticketa edo faktura. - Mungialdeko Behargintzak bonoen erabilera egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzea ahalbidetzen duten frogagiriak egiaztatuko ditu. - Ez da onartuko bono bakoitzaren eta fakturaren arteko lotura zalantzazkoa erakusten duen frogagiririk. - Udalak banku-transferentzia bidez aurkeztutako bonoei dagokien zenbatekoa ordainduko dio establezimenduari, emandako kontu korrante zenbakian, gehienez ere bi hilabeteko epean, bonoak trukatzeko epea amaitu ondoren.	9. Justificación y liquidación de bonos con el Ayuntamiento - Para el canje de los bonos se proporcionará acceso a una App. - Los establecimientos adheridos deberán registrar a través de la App los Ticket/factura correspondiente a la venta para su liquidación. - Mungialdeko Behargintza comprobará los justificantes que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de los bonos. - No se admitirán justificantes en los que la asociación entre cada bono y factura resulte dubitativa. El Ayuntamiento abonará al establecimiento el importe correspondiente a los bonos presentados mediante transferencia bancaria, en el número de cuenta corriente facilitado, en el plazo máximo de dos meses, una vez finalizado el plazo de canje de los bonos.
10. Atxikitako establezimenduen betebeharrak: - Oinarriak eta eurotan ezarritako konpromisoak onartzea, eta kontsumitzaileei programaren ezaugarrien berri ematea. - Establezimenduen kanpoaldean Mungibono programara atxikita daudela erakustea, publizitate-materialak ageriko leku batean jarritz. - Bezeroekiko tratuan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatzea, kanpainaren indarraldian bonoa erabiltzeko interesa duen pertsona orori bonoa erabiltzeko eskubidea ez ezkutatzeko eta ukatzeko. - Erosleei dirurik ez itzultzea inola ere. - Jasotako diruaren erabilera justifikatzen duten bonoak eta tiketak edo fakturak gordetzea, Mungialdeko Behargintzak	10. Obligaciones de los establecimientos adheridos: - Aceptar las bases y asumir de los compromisos establecidos en las mismas, informar de las características del programa a las personas consumidoras. - Publicitar en el exterior del establecimiento la situación de adhesión al programa mediante la colocación de los materiales publicitarios en lugar visible. - Respetar los principios de igualdad y no discriminación en el trato con la clientela, de modo que no se oculte ni se niegue el derecho a utilizar el bono a toda aquella persona interesada en su uso durante la vigencia de la campaña. - No devolver a la clientela dinero en metálico en ningún caso. - Conservar los tickets de compra o facturas justificativas de la aplicación de los fondos percibidos, en tanto puedan ser objeto de



egiazatu eta kontrolatu ahal izan ditzan. Eskatzen den informazio guztia eman beharko dute. – Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan edota Mungiako Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 26. artikuluan ezarritako kasuetan jaso den dirua itzultzea. – Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Mungiako Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 8. artikuluan zehaztutako betebeharrak betetzea.	comprobación y control por parte de Mungialdeko Behargintza, debiendo aportar cuanta información sea requerida. – Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 37 de la Ley General de Subvenciones y/o en los recogidos en el artículo 26 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Mungia. – Cumplir las obligaciones que detalla el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones y las detalladas en el artículo 8 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Mungia.
11. Bateragarritasuna Deialdi honen babesean lortutako laguntza bateragarria izango da beste administrazio publiko edota erakunde batzuetatik jasotako beste edozein diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek.	11. Compatibilidad La ayuda obtenida al amparo de la presente será compatible con cualquier otra subvención, ayuda, ingreso o recurso procedente de otras Administraciones Públicas y/o por entidades.
12.- Datuen babesa Datu pertsonalen tratamendu automatizatua. Datu pertsonalak babesteari dagokionez, Mungiako Udalak honako arauak ezarritakoa beteko du: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 EB Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoa. Bildutako datu pertsonalak Mungiako Udalaren ardurapeko tratamendu-jardueraren -Diru-laguntzak- parte izango dira. Jarduera horren helburua diru-laguntzak kudeatzea eta kontrolatzea, iruzurrari aurre egitea eta estatistika-helburuak betetzea da. Bildutako datuak beharrezkoak dira Mungiako Udalari emandako botere publikoak gauzatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko, eta gai horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinarazi egin ahal izango zaizkie. Datuen titularrek euren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, Mungiako Udalari (Trobika kalea 1) jakinarazpen idatzia bidali beharko diote. Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza helbide honetan ikus daiteke: http://www.mungia.eus.	12. Protección de datos Tratamiento automatizado de los datos de carácter personal. En materia de protección de datos de carácter personal el Ayuntamiento de Mungia sujetará su actuación a lo dispuesto en el Reglamento General de Protección de Datos (Reglamento UE 2016/679) y en la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. Los datos personales recabados formarán parte de la actividad de tratamiento -Subvenciones- de la que es responsable el Ayuntamiento de Mungia y cuya finalidad es la gestión y control de las subvenciones, la persecución del fraude y fines estadísticos. Los datos recabados son necesarios para el ejercicio de poderes públicos conferidos al Ayuntamiento de Mungia y el cumplimiento de las obligaciones legales y podrán ser comunicados a Administraciones Públicas con competencias en la materia. Quienes ostenten la titularidad de los datos podrán ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación del tratamiento, enviando comunicación escrita a Ayuntamiento de Mungia, c/ Trobika 1. Puede consultar la información adicional y detallada sobre protección de datos en http://www.mungia.eus.